



Trikizio taldea 1999an sortu zen, plaza-talde peto-pettoa zein bikaina da. Trikizio taldeak Euskal Herriko hamaika jaietako giroa suspertu, alaitu eta areagotu du urteak joan urteak etorri single edo kanturik entzutetsuenak duintasun guztiarekin jota. Trikizio taldeak hainbat musikari hartu ditu bere ibilbide oparo eta luzean, urtero 70 egunetik gora hiru edo lau orduko saioak emateak bere ondorioak dakartza nekearekin batera. Doan tokira joanda ere, beti ikusiko dugu Trikizio buru belarri festaren alderik zalapartatsuen indarrarekin eskainiz, gogotsu. Trikizio taldeak jaiak alaitasun biribil bilakatzen ditu, musika trebeziarekin egokituz.

Gotzon: ahotsa eta trikiak
Jon Ander: ahotsa eta gitarra
Asier: baxua eta koroak
Asier: batería

